

ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO (EH) MAISU-MAISTREN JARDUERAREN JARRAIBIDEAK

1. HITZAURREA

2. ANTOLAKETARAKO, ESKU HARTZEKO ETA FUNTZIONAMENDU ADMINISTRATIBORAKO IRIZPIDEAK.

2.1. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO IRAKASLEEN ATXIKIPENA ETA BANAKETA, ETA ORDUTEGIA.

2.2. ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOAK

3. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO MAISU-MAISTREN EGINKIZUNAK

4. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO SAREAREN ERANTZUNERAKO IRIZPIDEAK

4.1. HIZKUNTZA/KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (DESGAITASUNARI LOTUAK) DITUZTEN IKASLEEI LAGUNTZEA

4.2 HIZKUNTZA/KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (ARLO HORRETAKO ATZERAPENEI/NAHASTEETI LOTUAK) DITUZTEN IKASLEEI LAGUNTZEA

4.2.1. AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZAREN ARLOA

4.2.2. MINTZAMENAREN ARLOA

4.2.3. AHOTSAREN ARLOA

4.2.4. MINTZAMENARI ERASATEN EZ DIOTEN ALTERAZIO ORO-MIO-FUNTZIONALAK

4.2.5. MUTUTASUN SELEKTIBOA

4.3. AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZAREN ESTIMULAZIOA IKASGELETAN

4.3.1. IKASGELETAN AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZA SUSTATZEKO SITE

5. EH-KO IRAKASLEAK HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETAN (HBZ), EGITURA ESPEZIFIKOAK DITUZTEN IKASTETXEETAN ETA ESKOLATZE KONBINATUAN DAUDEN IKASLEEKIN

6. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZA IRAKASLEEN PLATAFORMA DIGITALA

7. PRESTAKUNTZA

8. HARREMANETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKO ETA TELEFONOAK

creena-comunicacion@educacion.navarra.es

ANEXO 1

1. HITZAURREA

Komunikazioaren, hizketaren eta hizkuntzaren esparruan askotariko hezkuntza-premiak daudenez, eta ikasle guztiek arlo horietan oinarritzko gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko helburua dagoenez, beharrezkoa da hausnartzea bai hezkuntza-jardunari buruz, bai premia horiek hezkuntza testuinguruan aztertzeko, ulertzeko eta erantzuteko moduari buruz. Helburua da Entzumen eta Hizkuntzako irakaslearen zeregina garatzea eskola inklusiboaren esparruan.

Hezkuntza-inklusioak balio berriak dakartza eskolan. Batez ere haurren komunikazio-harremanak gertatzen diren testuinguruak aztertu eta kontuan hartu behar dira: eskola-testuingurua eta familia-testuingurua. Helburua da testuinguruan kokatuago dagoen eta curriculumarekin eta eguneroko jarduerekin ere lotuta dagoen ebaluazioaren/esku-hartzearen prozesuan sakontzea. Era berean, ikasle guztien parte-hartze aktiboa areagotzea dakar, ikasteko testuinguru bat sortuz, non hizkuntza eta/edo komunikazio-zailtasunak dituzten ikasleek ez duten oztoporik aurkitzen eta gela barruko egoera kolektiboetan hobetzea lortzen duten. Horregatik, esku-hartzeak komunikazio-ingurunera bideratu beharko dira batez ere, eskolako ikasgelarantz berbideratu beharko dira, bertan egiten diren jardueretan arreta jarriz eta ikasgelako programazioan esku-hartze espezifikoen helburuak txertatuz. Era berean, familiaren kasuan, ezinbestekoa da haren testuinguruari edukia ematea, hezkuntza-komunitateko eragile guztiak inplikatu behar baitira zeregin horretan. Komunikazioak, testuinguru horretan, barne hartzen ditu ahozko eta idatzizko hizkuntzaren ulermenari eta adierazpenari loturiko eginkizunak, baita ahozkoa ez den beste edozein komunikazio formari loturiko eginkizunak ere.

Ilido horretan, aholkularitzan oinarritutako ereduen balioa aitortzen bada ere –eredu horietan garrantzi berezia hartzen du irakasleen eta familien prestakuntzak–, bereziki garrantzitsua da azpimarratzea ebaluaziorako/esku-hartzerako lankidetzaren-eredua sustatzeko beharra dagoela, profesional guztiak eta familiak maila berean aintzat hartuko dituen, eredu bat ulertuko duena zeregina ez dela soilik entzumen eta hizkuntzako espezialistena; aitzitik, badela ere hezkuntza-etapa guztietako irakasle guztien, hezkuntza-laguntzako espezialistaren (HLE) -halakorik badago- eta familiaren berezko eta oinarritzko lana, eragile guztien lan koordinatu eta lankidetzakoa eskatzen duena, bakoitzak eman dezakeen ezagutza gainerakoenari gehituz.

Eskolan, Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistraren zeregina, batez ere, ikasle guztientzako programa eta jarduera proaktiboak sustatzea eta garatzea izan behar da, txikitatik hasita (ahozko eta idatzizko hizkuntzako arazoak agertu baino lehen); aholkatzea ikastetxean komunikazio-gaitasunak eta hizkuntza gaitasunak sustatuko dituzten estrategiei eta materialei buruz; eta erantzutea hizkuntzaren eta komunikazioaren berariazko zailtasunei, lankidetzan oinarrituta.

Entzumen eta Hizkuntzako irakasleen esku-hartzea, bestalde, Haur eta Lehen Hezkuntza etapetan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eginen da. Bigarren

Hezkuntzako ikastetxeetan, berriz, esku hartuko da entzumen desgaitasuna duten ikasleek berriazko esku-hartze batekin jarraitzeko beharra dutenean.

Izan ere, asmoa da eskola aktibatzeko eta optimizatzeko helburuarekin urratsak hurrenez hurren ematen joatea, hizkuntzaren eta komunikazioaren alorrean hezkuntza-premiak dituzten ikasleek hezkuntza garapen eta garapen emozional eta sozial hobe izan dezaten.

Dokumentu honetan, ikasleen arretarako hezkuntza-erantzunaren antolamendua hobetzen laguntzeko jarraibideak zehazten dira, irizpideak eta jarduketak bateratuz, ikasle guztiei begiratuz eta parte hartzeko eta ikasteko oztopoak kenduz, testuinguruek, hitzaren zentzurik zabalenean, hizkuntza eta komunikazioa garatzeko duten baliotik abiatuta, ondoko xedearekin: laguntzak antolatzeke beste modu batzuetan parte hartzea, ikasgelen barruan eta familiarekin lankidetzan, ikasle batzuekin egin behar diren banakako eta ezinbesteko jarduketan osagarri.

2. ANTOLAKETARAKO, ESKU HARTZEKO ETA FUNTZIONAMENDU ADMINISTRATIBORAKO IRIZPIDEAK.

2.1. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO IRAKASLEEN ATXIKIPENA ETA BANAKETA ETA ORDUTEGIA.

Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak sektore-sare batean egituratuta daude, eta ikastetxeak eta sektorearen beharrak kontuan hartuz antolatzen da beren lana. Gutxienez ere urtean behin sarearen, Inklusio Atala eta Hezkuntza Premien Bulegoaren eta NHEBZko dagokion programaren arteko koordinazio bilkura bat ezarriko da, intereseko gaiak lantzeko asmoz.

Ikastetxeentzako Entzumen eta Hizkuntzaren laguntza-baliabidea eskualde bati atxikitzen zaio.

Eremu bakoitzaren barruan, Entzumen eta Hizkuntzako irakasle bakoitzari oinarrizko ikastetxe bat esleitzen zaio, baina horrek ez du esan nahi ikastetxe horretan eskaintzen duenik arretarik handiena, baizik eta oinarrizko ikastetxea dela soilik administrazio-ondorioetarako: kilometroak eta egutegia..

Entzumen eta Hizkuntzako espezialista esku hartuko duen ikastetxeetako Hezkuntza Laguntzako Unitateko kide izanen da. Ordutegiak direla-eta edo HLUrik ez dagoelako posible izanen ez balitz, beharrezko koordinazioak ezarriko dira orientatzailearekin.

Ikastetxeko HLUak zehaztuko du Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistraren asteko ordutegiaren antolamendua. Ibiltaritzako lanpostuen kasuan, ordutegi proposamena HLU bakoitzean egingen da, ikastetxeen beharren arabera eta ahal den neurrian jarraibide hauetan jasotako orientazioei jarraituz.

Kontuan izanen dira ibiltaritzak (eskola ordutan konputatuko dira beste irakastordutegi bateko orduetatik hasita). Kilometrajeari dagokionez, EHko maisu-maistrek, hilabete bakoitzaren 5a baino lehen, joan-etorrien zerrenda bidaliko diote beren oinarrizko ikastetxeko zuzendaritza-taldeari, eta zuzendaritza-talde horrek behar bezala kudeatuko du. Zein ikastetxetan esku hartzen den, ikastetxe horietako zuzendariak sinatuta eta zigilua jarrita egonen dira ibiltaritza horiek.

Inklusio Atalak eta Hezkuntza Premien Bulegoak deitutako sektore-sareko bilkurari dagokion kilometrajea atal horretara igorriko da.

2.2. ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOAK

Inklusio Atalak eta Hezkuntza Premien Bulegoak esleituko diote ikastetxe bakoitzari Entzumen eta Hizkuntzako espezialistaren baliabidea, ikastetxeetako zuzendaritzari urtero jakinarazten dizkioten irizpideak aplikatuz. Irizpide horiek erreferentziatzen hartzen dituzte ikastetxeen ezaugarriak, ikasle goaren premiak, hezkuntza-erantzunak, ikastetxeko orientatzaileak Hezkuntza Kudeaketako Programan egindako eta islatutako proposamena, eta, behar den kasuetan, NHEBZko berriazko Programen jarraibideak.

Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistrak ikastetxean ematen duen laguntzaren plangintzak alde aurretik eskatzen du Hezkuntza Laguntzako Unitatean (HLU) azterketa egin eta baterako akordio bat hartzea. Entzumen eta Hizkuntzako irakasleen laguntzak zehaztu eta antolatzerakoan, ondokoak kontuan hartuko dira:

- Ikasgeletan ahozko eta idatzizko hizkuntza estimulatzeko jarduerak garatzeko esleitutako saioak.
- Aurreko ikasturteko Inklusioaren Planaren memoria.
- Ikastetxeko profesionalek egindako eta/edo bideraturiko eskaerak aztertzea eta baloratzea.
- Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak ikasturtean zehar sare sektorialean garatutako ereduaren arabera ikasleen banakako txostena osatuko du. (1. eranskina). Txosten honetan, identifikazio-datu garrantzitsuenak ebaluazioaren eta diagnostikoaren alderdiak islatu behar dira, bai eta helburu orokorrak eta hiruhilekotik hiruhilekora lortu beharreko helburu espezifikoak ere, ikasleei eta esku hartzeko testuinguruei, horien garapenera eta hezkuntza-prozesuan lortutako bilakaerari eta trebetasunei dagokienez, eta, horrekin batera, azken laburpena eta hurrengo ikasturterako aurreikuspena. Txosten horiek Hezkuntza Laguntzarako Unitatean zentralizatuko dira.
- Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistrak egingen du komunikazioari eta/edo hizkuntzari loturiko HLPBdun ikasle eskolatu berrien balorazioa, ikastetxeko orientatzailearekin koordinatuta.
- Ikastetxeko orientatzaileak eskatuko die, beharren arabera, aholkularitza NHEBZko programiei.
- Ikasle jakin batzuek ikastetxetik kanpo tratamendua jasoko balute (ANFAS, kabinete pribatuak, elkarteak, etab.), beharrezko koordinazioak ezarri beharko lirateke, eta banakako txostenean hori adierazi beharko litzateke, erreferentziako pertsonak, hartutako erabakiak, eta abar.
- Espazioak eta material hornidurari dagokienez, esku hartzeko behar den



materiala ikastetxearen kargua izango da, batik bat material didaktikoa. Material tekniko espezializatuari, bibliografikoari eta diagnostikoari dagokienez, NHEBZri eskatzen ahal zaio maileguz uzteko. Horrez gain, ikastetxeek toki egoki bat prestatuko dute Entzumen eta Hizkuntzako espezialistak lan egin dezan. Ildo horretan, gomendatzen da espazio horren kokapena ahalik eta hurbilen egotea artatutako ikasle gehienengandik (oro har Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoa).

3. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO MAISU-MAISTREN EGINKIZUNAK

Entzumen eta Hizkuntzako irakaslearen eginkizun nagusia Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleekin eta familiekin lankidetzan, ikaslego osoari eta, bereziki, HLPBak (degaitasunari –HPB– edo arlo horretako atzerapenei edo nahasteei lotuak) dituzten ikasleei komunikazio/hizkuntza arloetan laguntza espezializatua ematea da.

Komunikazioari/hizkuntzari laguntzeko funtzioa zuzeneko edo zeharkako arretaren modalitateen bidez gara daiteke, eta, bi kasuetan, dagokion koordinazioa beharko da hezkuntza-orientazioko irakasleekin, HLE profesionalarekin, tutoretzekin, familiarekin...

Zuzeneko esku-hartzea da Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleek ikasleekin egiten dutena helburu espezifikoen arabera, banakako plan batean oinarrituta, ahaztu gabe ikasgelako eta etxeko testuinguruak ebaluaziorako/esku hartzeko testuinguruak ere badirela.

Ikasturte Hasierako Jarraibideetan honako hau esaten da: "Salbuespen gisa ohiko ikasgelatik kanpo laguntza ezarri beharra justifikatu behar denean, honako hauek zehaztuko dira: erabaki horren arrazoia eta xedea, lortu nahi diren helburuak eta testuinguru arruntean horiei erantzuteko dagoen ezintasunaren zergatia. Era berean, zehaztu eginen da zenbat denborarako aurreikusi den halako esku-hartzea, kontuan hartuz ikasgelatik kanpoko saio kopurua ahalik eta txikiena izan behar dela".

EHko irakaslego espezialisten esku-hartzearen berezko arloetan (komunikazioa, ahozko hizkuntza, hizketa eta idatzizko hizkuntza) HLPBak dituzten ikaslegoak inplizituki ikasten ez dutenak dira, modu kontzientean lan egin behar dutenak eta, gela arruntean lantzen diren edo berezkoak dituzten komunikazio-eta/edo hizkuntza-helburuak lortzeko, horien agerpen askoz handiagoa behar dutenak. Ikasle horiek, ikasgela-taldearen dinamiketan edo ikasgelako talde txikietan parte hartu arren (Esku-hartzeari Erantzuteko Ereduaren eskemari dagozkion lehen eta bigarren mailak -RTI-), berariazko helburuei buruzko esku-hartze fokatu eta intentsiboa behar dute, modu esplizituan lantzeko, distraktorerik gabeko giro batean, haiekin partekatutako helburu horiek ulertzeko, motibatuzko eta ikasteko behar den denborarekin, denbora nahikoarekin entzuna izateko eta esanahiak negoziatzeko, erantzun bat sortzeko, errepikatzeko, praktikatzeko... Esku-hartze mota horrek, eraginkorra izan dadin, banakako esku hartzea edo helburuak partekatzen duen talde txiki bateko lana eskatzen du.

Esku-hartze hori egingo den lekuaren (ikasgelaren barruan edo kanpoan),

maiztasunaren eta emandako denboraren inguruko erabakia honako hauen arabera izango da: ikasleen premiak eta ikasleen ezaugarri pertsonalak, ikasgelaren testuingurua (espazioa, ingurumen-baldintzak, ikasleen ratioa...), irakasle espezialistek planteatutako esku-hartze ikuspegia eta familiaren eta irakasle-taldearen alderdiak.

Modu honetan, alde batetik, erabaki kolegiatua da, ikasleen eta testuinguruaren baldintzen ebaluazioan oinarrituta, beharrezko lana eta ikasteko aukerak bermatu behar dituen, eta, bestetik, erabaki aldakorra da, ikasleen eta interakzioaren testuinguruaren helburuen lorpena ebaluatzean oinarritutako hizkuntzaren eta komunikazioaren trebetasunei buruzko lanaren berezko dinamismoari lotua.

Azkenik, oso garrantzitsua da kontuan hartzea esku-hartze hori ikasgelako bizitzarekin, curriculumarekin eta familia-testuinguruarekin lotuta egon behar dela, ikasleen beharrak asetzeko eta parte-hartzea eta ikaskuntza errazteko helburuak landuz. Hau da, familia eta irakasleak barne hartzen ez dituen ikasleekin esku-hartzea eragin gutxiko esku-hartzea izango da.

Entzumen eta Hizkuntzako maisu-maistraren jarduerak ikastetxean eginkizun hauek garatzera bideraturik izango dira:

- Komunikazioarekin eta hizkuntzarekin lotutako jarduerak egiteko eta garatzeko lanetan parte hartzea (Sare Sektorialak proposatutako ikasgeletan ahozko eta idatzizko hizkuntzaren estimulazioa, Inklusio Plana, ikastetxeko hizkuntza-proiektua, zikloko/gelako programazioak eta curriculumaren egokitzapenak). Era berean, Ikastetxearen Proiektuan Komunikazio Sistema Handigarriak eta Alternatiboak (KSHA), hala nola, sistema bimodala edo piktografikoak (AsTeRICS Grid de Arasaac,...), Zeinu Hizkuntza eta abar erabiltzeari buruzko edukiak eta neurriak jaso eta sartu behar dira, KSHA erabil dezaketean ikastetxeko ikasleen komunikazioa sustatzeko.
- Aholkatzea eta irakasleekin lankidetzan aritzea, ikasgelako curriculum arruntan sar daitezkeen komunikazioa eta hizkuntza garatzeko eta eskuratzeko prozesu arruntak, zailtasunak dituzten ikasleen balizko berariazko esku-hartzeek jarraipena izan dezaten ikasgelako testuinguru naturalean.
- Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistraren programazioa egokitzea, ahal den neurrian, HPBak dituzten ikasleen ikasgelako programazioari, edota kasuan kasuko ikaslearen curriculum-egokitzapenari, hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan.
- Tutoretzekin elkarlanean aritzea, batez ere, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren estimulazioan. Jarduera horrek, ikasle guztien hizkuntza-trebetasunak sustatzeaz gain, zailtasunak detektatzen ditu eta behar dutenekin maila desberdinetan esku hartzeko aukera ematen du. Bereziki garrantzitsua da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetan, baina etapa osoan zehar jarduerak egitea ahalbidetuko duen begirada eta

arretarekin.

- Hizkuntzaren bilakaerari baloratzea eta jarraipena egitea.
- Ikasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko irakasleekin lankidetzan aritzea estrategiak eta orientabideak lantzen, eskola-testuinguruan eta ikasgelan aldaketak egiteko (proposamen didaktikoak eta metodologikoak, antolamenduko – ikasleen multzokatzeak, espazioak eta denborak –, materialak, hizkuntza ikasteko aukerak eta erabilitako komunikazio-estrategiak).
- Familiarekin lankidetzan aritzea eta orientabideak ematea familia inguruneak aktiboki eta eskolarekin koordinatuta parte har dezan seme-alaben hizkuntza/komunikazioa hobetzeko prozesuan.
- Inklusio Planean sartu beharreko ikasturteko jarduera-programaren laburpena egitea, bai eta ikasleen lanari, programazioari, garapenari eta bilakaerari buruzko banakako edo taldeko txostenak ere, sektore Sareak proposatutako ereduaren arabera (1. eranskina).

4. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO SAREAREN ERANTZUNERAKO IRIZPIDEAK.

Hizkuntza/komunikazioaren arloan dagoen hezkuntza premiaren mailak erabakiko du esku-hartzen lehentasuna. Arlo horretan lehentasuna izanen da zailtasun handiagoak dituzten ikasleei laguntzea (desgaitasunari, edota arlo horretako atzerapenei edo nahasteei lotutako zailtasunak dituztenei, hain zuzen). Hala ere, inola ere ez du ekarriko orduak galtzea ikasle guztiei zuzendutako ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren estimulazioa lantzeko eta garatzeko lantzeko eta garatzeko, horiek ere lehentasunezkoak baitira.

Laguntza modalitatea eta erantzuna jasoko duten ikasleak ikastetxe bakoitzeko HLUaren esparruan zehaztuko dira, bertako kide guztien baterako azterketa baten ondotik. Komeni da tutoreekin eta familiekin koordinatzea, komunikazio-elkarreraginak hobetzeko eremu guztietan.

Entzumen eta Hizkuntzako espezialistak ez du laguntza zuzenik emanen Bigarren Hizkuntza (H2) ikasteko atzerapenetan. Edozein salbuespen Hezkuntza Laguntzako Unitatean adostu beharko da, eta aldaketa bat justifikatzen duten arrazoiak justifikatu beharko dira.

4.1. HIZKUNTZA/KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (DESGAITASUNARI LOTUAK) DITUZTEN IKASLEEI LAGUNTZEA

Irizpide nagusi gisa, Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistrak batik bat esku hartuko du Haur Hezkuntzako etapan eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren ikasmailatan, desgaitasun intelektuala, sentsoriala edo mugimendukoa duten ikasleekin. Ikasle horiez gain, Komunikazioaren eta Hizkuntzaren nahasmendu larria duen ikasleek Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasletzat hartuko dira. Zentzu honetan:

- Ikasleentzako arretak ikasleen adina eta PTko espezialistaren laguntza hartuko ditu kontuan.
- Desgaitasun intelektuala duten ikasleek hizkuntzaren eta komunikazioaren garapen maila funtzionala lortu badute (balio pragmatikoko emisio ulergarriak) eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleek laguntzen badiete, Entzumen eta Hizkuntzako maisuak/maistrak ez die zuzenean lagunduko.

- Entzumen edo mugimendu desgaitasun larria duten ikasleek, ahozko hizkuntza edo entzumen funtzional eskasa dutenean, Lehen Hezkuntza etapan Entzumen eta Hizkuntzako espezialistaren laguntza hartzen jarraituko dute, premien eta antolamendu kontuen arabera.
- Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larria duten ikasleek zailtasun larriak dituzte hainbat arlo edo ikasgairi eragiten dieten hizkuntza-trebetasunetan. Nahasmenduaren larritasuna hezkuntza premia bereziek eragiten dutenez, curriculumaren egokitzapen esanguratsua premia horiei erantzungo dien hezkuntza-neurria izango da, eta, gainera, laguntza etengabe eta intentsibo indibidualizatua eta espezializatua beharko da eskola-urte gehienetan.

4.2 HIZKUNTZA/KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (ARLO HORRETAKO ATZERAPENEI/NAHASTEEI LOTUAK) DITUZTEN IKASLEEI LAGUNTZEA

Halaber, lehentasunezko izaera du hizkuntza/komunikazioaren arloko zailtasun handiak, arlo horretako atzerapenei/nahasteei lotuak, dituzten ikasleei laguntzeak (curriculumera iristea baldintzatu eta baldintza horietatik etor daitezkeen ikasteko zailtasunak eragin ditzaketanak).

4.2.1. AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZAREN ARLOA

Egungo Educa eroldaren gidarekin bat etorriz, Entzumena eta Hizkuntzako irakasleek honako hauei eskainiko diete arreta:

Hizkuntzaren zailtasunak

Hizkuntzaren zailtasuntzat hartzen da hizkuntzaren agerpenean edo haren dimentsioen garapenean atzerapena (fonologikoa, morfosintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa), batez ere adierazpenari eta, neurri txikiagoan, ulermenari eragiten diona, eta hori ez da gertatzen adimen-desgaitasunaren, AENren, entzumen-defizitaren edo nahasmendu neurologikoen ondorioz.

Mintzamena ez agertzeari edo berandu hasteari dagokionez, 2-3 urterekin agertzen dira larritzeko lehen susmoak, eta, nahitaez, 4 urte bete baino lehen. Atal honetan, “hasiera berantiarreko hiztunek” arreta berezia eskatzen dute. Bi urterekin bere inguru hurbilerako ulergarriak diren 50 hitz baino gutxiago ekoizten dituen

eta/edo bi hitzeko enuntziaturik ez duen haurra (Kelly, 1998) hasiera berantiarreko hiztuna da. Gutxi gorabehera %40k HGN bat izango du. Hau da, ikasle horietako batzuek estimulazio/esku-hartze bat aprobetxatuko dute, argi eta garbi, baina beste batzuek, lan honen onura gorabehera, zailtasun iraunkorrak erakutsiko dituzte, nahasmendu bat egon daitekeela adieraziz.

Horregatik CATALISE partzuergoak sei hilean behin ebaluatzea gomendatzen du, hiztun berantiarren bilakaeraren jarraipena egiteko;

Hizkuntzaren garapenaren nahasmendua (HGN).

Hizkuntzaren garapenaren nahasmendua (HGN) ahozko hizkuntza eskuratzeko eta garatzeko nahasmendu iraunkor gisa definitzen da, zeina loturik ez baitago baldintza mediko batekin, zeinak hizkuntzaren osagai bat edo batzuk inplikatzeko ahal ditu, maila desberdinetan, hala adierazpenari nola harpenari dagokionez, eta gizarte eta/edo eskola garapenari eragiten dio (Leonard, 1998; Bishop, 2016).

Haur hauekin, 5 urteetarako, ahozko hizkuntzaren zailtasunak konpontzea gertagaitz ikusten da (edo ez dira konpondu).

Ikaskuntza nahasmendua. Irakurketa eta idazketa.

Irakurtzeko zailtasunak dituzten eta idatzizko adierazpenean zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, orientatzaileak alde aurretik diagnostikoa eginda eta hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak kontuan hartuta, Hezkuntza Laguntzako Unitatearen esparruan esku-hartze espezifikoago bat behar den erabakiko da (dagozkion sarbide-egokitzapenez gain), baita eskuhartze hori egiten duen profesionala ere (tutorea, EHko edo PTko espezialista).

Ikasleen hizkuntza-trebetasunak garatzeko esku-hartze proaktiboa egiteko Departamentuak bultzatzen duen ildoari jarraituz, dokumentu honen 4.3 puntura arreta bideratzen dugu.

Bestalde, gogorarazten da GREENAren WEB orrian [hizkuntza idatziarekin zailtasunak goiz detektatzeko protokolo](#) bat dagoela eta tresna hori erabiltzeari ekiten zaiola. Horrek ahozko eta idatzizko hizkuntzaren estimulazioa proposatzen du zailtasunak detektatzeko bide nagusi gisa, bigarren bide batekin batera, egiaztapen zerrendetan oinarrituta.

4.2.2. MINTZAMENAREN ARLOA

Jatorri organikoa duten mintzamen zailtasunak (disglosiak).

Laguntza ematerakoan kontuan izanen dira:

- Bilakaeraren irizpideak, esku-hartzea zehazteko.
- Larritasuna, eta zailtasun horrek norainoko eragina duen mintzatzeko prozesuan; ez da horrenbeste kontuan hartuko, ordea, ahotsari erasaten diona. Erantzun zuzena jasoko dute, eta ondoren, ahal bezain laster zeharkako erantzuna (Entzumen eta Hizkuntzako espezialistaren irizpidearen arabera), irakasleendako eta familiendako orientazioekin.

Hizketaren soinuen nahasmenduak.

Laguntza ematerakoan kontuan izanen da:

- Garapen fonetiko-fonologikoaren irizpide ebolutiboak.
- Jatorri kulturalako artikulazio-bereizgarrietan ez da esku hartuko (adb. kanariar hizkeraren koda posizioan dagoen /s/ soinuaren aspirazioa).
- Era berean, ez da esku-hartze espezifikorik egingo soinu batek ordezkatzeko duen bibratzaile anizkoitzeko errotazismo isolatu batean, kontuan hartuta ez duela eraginik komunikazioan eta ez duela eraginik irakurketa-idazketaren eskurapenean.

Hizketaren arintasunaren nahasmenduak.

Disfemiari ez dio zuzeneko arretarik ematen ALko espezialistak, baina ikerketek adierazten dute hizkuntzaren eta hizketaren garapeneko disfluentzien eta arazoaren arteko lotura dagoela. Badirudi totalka hitz egiten dutenek geroago hitz egiteko joera dutela eta askotan ahoskatzeko arazoak izaten dituztela. Horregatik, garrantzitsua izango da hizkuntzaren eta hizketaren ebaluazioa egitea eta esku-hartzerik behar den zehaztea.

Totalkeria goiztiarrarekin, 2 urte eta erdi eta 5 urte bitartean hasten denarekin, Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleek modu prebentiboan eta behatzailean, eboluzioa nolakoa denari dagokionez, esku hartuko dute. Familiaren eta eskolaren testuinguruei arreta emango dien esku-hartze goiztiar batek arintasun falta normal bat arazo bihurtu ez dadin eta ezar ez dadin lagunduko du. Hezkuntza orientazioko irakasleek, balorazio psikopedagogikoa egin ondoren eta EHko espezialistaren aholkularitzarekin, esku-hartze plana diseinatuko dute, bai familian, bai eskolan.

Kasuen ehuneko handi samar batean, zailtasunak esku-hartze profesional espezifikorik gabe baretzen du, baina nahasmenduak, hasi zenetik urtebete igaro ondoren, bere horretan jarraitzen duenean, hura ezartzeko eta mantentzeko arriskua handiagoa da, eta disfluentzia atipikoa bada adin horietarako, hau da, soinua, silaba edo hitz bat errepikatzea hiruzpalau aldiz baino gehiagotan; ahalegin nabarmenak egitea ateratzen ez zaion hitza esateko; hitz egiteko beldurra izatea edo hitz egitea saihestea, eta hizketarekin lotutako mugimenduak egotea aurpegian edo



gorputzean, edo kezkatuta agertzea hitz egiteko moduagatik, orduan totelduraz hitz egiten has liteke (Wingate, 1976; Fernández-Zúñiga, 2013), eta eremu hori lantzen duen espezialista batengana bideratzea aholkatuko zaio familiari.

4.2.3. AHOTSAREN ARLOA

Entzumen eta Hizkuntzako maisu-maistrek ez dute zuzenean esku hartuko ahots-emisioko zailtasunetan (jatorri organikoa, funtzionala, sortzetikoa edo hartutakoak –afoniak, disfoniak eta rinolalia–). Familiari gomendatuko zaio mediku foniatrarengana edo otorrinoarengana eramatea, eta diagnostikoaren ondoren, familiari ahots-higieneko jarraibideei buruzko aholkuak emanen zaizkio, eta beharrezkoa balitz, eskolaz kanpoko ahots errehabilitazioa hartzeko beharra duela esanen zaio.

4.2.4. MINTZAMENARI ERASATEN EZ DIOTEN ALTERAZIO ORO-MIO-FUNTZIONALAK.

Ez da Entzumen eta Hizkuntza espezialistaren ardura zuzeneko arreta eskaintzea aho-linguo-aurpegiko disfunkzioak, ortodontzia-dismorfosiekin lotutako irentsi atipikoa eta abar, mintzamen-zailtasunekin zerikusi zuzena dutenean, kanpoko espezialista batek alterazio horiek zuzendu arte.

4.2.5. MUTUTASUN SELEKTIBOA.

Ez da komunikazioaren nahasmendua, antsietate-nahasmendua baizik. Ez du zertan atzean hizkuntza- edo hizketa-arazorik egon, baina batzuetan egon badago, eta horren kontzientziak mututasunaren jokabidea indartu dezake; horregatik, beharrezkoa da Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak ebaluazioa egitea. Esku-hartze goiztiarra oso garrantzitsua da ikasgelako eta familiako testuinguruak kontuan hartuta. Ikastetxeko orientatzaileak, balorazio psikopedagogikoaren ondotik eta Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistraren aholkularitzarekin, familiako zein eskolako esku-hartze plana diseinatuko du.

4.3. AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZAREN ESTIMULAZIOA IKASGELETAN.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren ikasmailetan hizkuntza/komunikazioa arloa estimulatzeak lehentasuna izan behar du ikastetxe guztietan.

Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak EHko espezialisten baliabide bereziak jarri ditu ikastetxeetan, ahozko eta idatzizko hizkuntza estimulatzeko

jarduerak garatzen laguntzeko, ikuspegi proaktibo batetik (zailtasunak agertu baino lehen jardunez), prebentzio-tresna gisa lantzeko eta, aldi berean, garaiz antzemateko zailtasunak, identifikatzen diren unean esku hartzeko eta, horrela, beranduagoko ikaskuntza-arazoak saihestu edo minimizatu ahal izateko. Horren bidez lortu nahi da EHko irakasleak eta irakasle tutoreak, lankidetzaren eredu batetik, haien garapenean inplikatzeko, plangintza bateratu eta kontestualizatu batetik abiatuta, ikasgelako programazioetan oinarrituta, hizkuntza edukiak sistematikoki eta kontzienteki lantzeko.

Ikasgelako programazioetan oinarrituta egon behar duela esaten denean, ideia hau nabarmentzen da: ikasgelako proposamen didaktikoetan eta jardueran (batzarra, ipuina, abestia, errutinak, ekitaldiak, txokoak, proiektuak...) integratu behar da hizkuntza-jardura, modu planifikatuan, kontzientean, sistematikoan eta ebaluatuan. Horretarako, inplikaturako eragileek denbora behar dute gauza bera ulertzeko. Adibidez, zer da kontzientzia morfologikoa? Zergatik egin behar da lan hori gelan? Nola egiten da lan ikasgelan? Nire ikasleen adina kontuan hartuta, zer proposatu eta itxaron dezaket? Noiz landuko ditut helburuak? Zein jardueratan, ipuinean, bazkarian, txokoetan...? Zenbat egunez egingo dut lan? Zein maiztasunekin? Nola ebaluatuko da eta jakingo da ikasle guztiek lortu duten lortu nahi zena? Zer erantzun emango zaie lortu ez dutenei?,...

Zeregin honetan guztian, argi dago Entzumena eta Hizkuntzako irakasleen rola ezin dela beti berdina izan, eta ez dela beti berdina izan behar. Ikasgela osorako jardura bat aurrera eramanez ahal izango du, helburuen lorpen-mailaren ebaluazioan parte hartu ahal izango du, talde txikian lan egin ahal izango du gehien behar dutenekin, tutoretzarekin partekatuta beharreko hurrengo helburuak planifikatu ahal izango ditu, dokumentazioa prestatu ahal izango du familiak informatuta egon daitezen eta zailtasunak dituzten ikasleen familiek etxean ikasitakoa indartu ahal izan dezaten...

Lehen eskolatze-ikasturteak aproposak dira ahozko zein idatzizko komunikazioarekin, hizketarekin eta hizkuntzarekin lotutako eredu egokiak sustatzeko eta ezartzeko, eta, azken batean, hizkuntzaren eta komunikazioaren maila optimoa ahalbidetuko duten oinarriak ezartzeko, arlo horietan arazo jakin batzuk agertzea saihestuz eta detektatzen diren unean jardunez. Hala ere, garrantzitsua da Lehen Hezkuntzako etapa osoan ahozko eta idatzizko hizkuntza estimulatzen jarraitzea.

Hizkuntzaren estimazioaren garapena ikastetxeetako zuzendaritzek eta Hezkuntza Laguntzarako Unitateak bultzatu behar dute, plangintza eta abiaraztea erraztuz, eta, horrela, ikasle guztien hezkuntza-arrakasta lortzen lagunduz

4.3.1. IKASGELETAN AHOZKO ETA IDATZIZKO HIZKUNTZA SUSTATZEKO SITE.

Entzumen eta Hizkuntzako Irakasleen Sare Sektorialak SITE bat prestatu du,



ahozko eta idatzizko hizkuntzaren estimulazioaz hitz egitean kontuan hartu beharko liratekeen edukiak biltzen dituen.

SITEa dokumentu bizia da, ezagutza zientifikoak aurrera egin ahala berrikusi behar den informazio eguneratuaz hornitzen baita. Berrikuspen hori etengabeko hobekuntza gisa eta kolektiboaren eta inplikaturako gainerako pertsonen zeregin gisa ulertzen da. Lan-tresna gisa, haren erabileran aurkituko dira haren indarguneak eta ahuleziak.

Hobetzeko edozein ekarpen egiteko, mezu elektronikoko bat bidali beharko da NHEBZaren Komunikazio Programara (creena-comunicacion@educacion.navarra.es).

SITEak, Tutoretzekin, Orientazioarekin eta Zuzendaritza-taldeekin partekatuta, ikasgeletan ahozko eta idatzizko hizkuntzaren estimulazioa garatzen lagunduko duten oinarri batzuk eskaini nahi ditu. Hala ere, EHko irakasleek ziurtatu beharko dute SITEerako sarbidea dutela lan egiten duten pertsona guztiek.

Hezkuntza komunitatearentzat erreferentzia baliagarria izatea du helburu, NHEBZaren Web-orririk eskuragarri, inplikaturako eragile guztien arteko ulermena eta, horrela, haren ezarpenean eta garapenean elkarlanean lan egin ahal izateko.

5. EH-KO IRAKASLEAK HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETAN (HBZ), EGITURA ESPEZIFIKOAK DITUZTEN IKASTETXEETAN ETA ESKOLATZE KONBINATUAN DAUDEN IKASLEEKIN

Hezkuntza bereziko ikastetxeetan edo Egitura espezifikoetan eskolatutako ikasleek curriculum-egokitzapen esanguratsuak behar dituzte, eta horregatik banakako laguntza iraunkorra eta ekintza espezializatuak eskatzen dituzte. Entzumen eta Hizkuntzako maisu-maistrek ikasle hauekin esku-hartzea komunikazioaren alorrean lehenetsi behar dute (komunikatzeko sistema handigarri eta ordezkoen eta laguntza teknikoen erabilera goiztiarra aztertuz).

Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan, Entzumen eta Hizkuntzako espezialistak banaka zein talde txikian eta ikasgelan esku hartuko du, hizkuntza eta komunikazio trebetasunak hobetzeko asmoz, eta horiei esker ikasle horiek adierazpen, irudikapen eta komunikazio intenzionaleko trebetasunak hasi eta hobetuko dituzte, tutoretzekin lankidetzan arituz ikasleen autonomia indibiduala eta gizarte-trebetasunak hobetzeko.

Bestalde, zeharkako esku-hartzea, ikastetxeko beste profesional batzuekiko eta familiekiko lankidetzan estuan egingen dena, Hezkuntza Bereziko ikastetxeen oinarritzko lana izanen da. Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eskolatuta dauden arren ikastetxe arruntera zenbait orduz joaten diren ikasleei dagokienez (eskolatze konbinatua), ikastetxe arrunteko Entzumen eta Hizkuntzako maisu/maistrak ez du ikasle horiekin esku hartuko, salbu baloratzen denean bi espezialistek (Hezkuntza bereziko ikastetxekoa eta ikastetxe arruntekoa) baterako aholkularitza eman behar dietela ikastetxeko profesionalei edota familiei.

Egitura espezifikoak dituzten ikastetxeetan, EHko espezialistak ordu finko batzuk izango ditu esleituta, eta ordu horiek erabiliko ditu Hezkuntza Laguntzarako Unitatean ikasleen komunikazioa eta hizkuntza garatzeko egokitzat jotzen den moduan esku hartzeko.



6. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZA IRAKASLEEN PLATAFORMA DIGITALA

NHEBZren webgunetik plataforma digital batera sar daiteke. Gune horretan, EHko sareko profesionalek elkarri lagun diezaiekete, dokumentuak, material interesgarriak, esperientziak eta abar partekatuz eta kontsultak eginez. Beren arteko komunikazio zuzeneko foro bat da.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, plataformarako sarbidea berrituko zaie EHko funtzioak betetzen dituzten profesionalei.

Kurtsoan zehar sartuko diren maisu-maistrek NHEBZren Komunikazio Programara (creena-comunicacion@educacion.navarra.es) mezu elektronikoko bat bidaliz eskatuko dute sarbidea, Nafarroako zein ikastetxetan ari diren beren lan profesionala egiten adieraziz.

7. PRESTAKUNTZA

Entzumen eta Hizkuntzako irakasleek gainerako irakasleen baldintza berberetan parte hartzen dute ikastetxeko prestakuntzari eta prestakuntza instituzionalari dagokienez.

Garrantzitsua da Irakasleen Prestakuntza Orokorreko Urteko Planeko jarduerak kontuan hartzea (ILZ), batez ere hizkuntza-komunikazioko gaitasunekin zerikusia dutenak.

Irakaslegoari Laguntzeko Zentroek (ILZ) eskainitako lan taldearen prestakuntza-modalitatea nabarmendu nahi da. Modalitate malgua da, hainbat irakasle beren intereseko prestakuntza-ardatz baten inguruan biltzea ahalbidetzen duena, eta askotan erabili izan da Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak teknikoki trebatzeko.



8. HARREMANETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKO ETA TELEFONOAK

Gizarteratze, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko Zuzendaria.

Alicia Ruiz Oria

Inklusio Atala

- Inklusio Ataleko Burua: Gabriel Cámara López
- Helbide elektronikoa : inclusion.educacion@navarra.es
- Telefonoa: 848 42 62 29

Hezkuntza Premien Bulegoa

Sonia Aristregui Huarte

Telefonoa: 848 42 62 30

Aran Asensio Igoa

Telefonoa: 848 42 39 03

Helbide elektronikoa: educacion.especial@navarra.es

NHEBZ

Telefonoa: 848 43 12 30

Komunikazio Programa

creena-comunicacion@educacion.navarra.es

Iruñean, 2023ko irailean



ANEXO 1

[Modelo de Informe de Audición y Lenguaje.](#)

[Entzumen eta Hizkuntzako Txosten Eredua.](#)